

III. Nazioarteko zenbait eredu

Kronika

Eskoziako eredua

Jiménez Asensio-ren hitzaldiari jarraituz, galdekizun batekin eman zion hasiera Neil McCormick-ek bereari: herrialde-autonomiaren garapen prozesuak bere baitan sistema judizial autonomo bat barneratu behar duen ala ez, alegia; hau guztia, europar esparrua kontsideratuz.

Arazo honek ez luke zentzurik izango Eskoziako egoera kontuan hartuz gero, Erresuma Batuan judizial-sistemak ez baitu sekula zentralizazio prozesurik ezagutu. Azpimarragarria da, beraz, Eskoziak hogeitabatgarren mendean bere lege-sistemari eutsi izana. Eskozia eta Ingalaterrak 1707an ekin zioten Britainia Handiko Erresuma Batuarien sortze prozesuari. Aipaturiko bateratze hau parlamentuaren eremuan eman zen, ingeles legebiltzarra Britainia Handiko parlamentua bihurtuz —bertako kideak eskoziar eta ingeles parlamentarioak direlarik—. Gauza bera gertatzen da exekutiboaren alorrean, Ingalaterrako koroak eta Eskoziakoak bat eginez, Londres duelarik hiriburu.

Modu honetan eratutako Britainia Handia inperio indartsua bihurtuko da hurrengo mendean, baina zer zegokion hobeki garai hartako errealtateari: *unitary state* deitzea ala gaur egun *union state* bezala ezagutzen den kontzeptua erabiltzea? Azken honetan, batasunaren elementu osagarriek beren nortasuna mantentzen dute. McCormicken iritziz, *union state* deitura eta izaera merezi ditu Britainia Handiak duen antolakuntza moduak —eta baita ere espainiar Estatuaren egoerak—. Britainia Handiaren sorreran ukaezinezko protagonismoa izan zuen *Articles of Union* deituriko hitzarmenak, Eskozia eta Ingalaterrako parlamentuetako ordezkarien negoziazioen fruitua izan zelarik. Hitzarmen hau, bata eta besteko legebiltzarrek berretsi behar izan zuten lege bihurtuz, eta, ondorioz, batasuna sortuz 1707ko maiatzaren 1ean. Hala ere, eskoziar parlamentuak zera galdatzen du baldintza moduan: bere berezitasun erlijiosoak mantendu ahal izatea. Modu horretaz, batasunaren barnean, bai Ingalaterrak, bai Eskoziak, bakoitzak bere Eliza eta dagokion gobernu antolakuntza izango ditu, nahiz biak protestantismoaren korronteak izan, lehendabiziko kasuan Eliza anglikanoa eta Eskoziakoan Presbiterianoa.

Berezitasunak ez dira, alabaina, erlijio kontura mugatzen, eta, sinatutako hitzarmenaren arabera, Eskozian lokal-gobernu sistemak jarraipena izango du. Gizarte zibila eta aipaturiko Elizaren arteko konbinazioak ezinbesteko ondorioa izango du: hezkuntza sistema berezia, bai eskola, bai unibertsitate mailan.

Justizi alorrean berriz, ez da garrantzi gutxiagoko kontua aipatzea Eskoziako bi auzitegi gorenek (*Court of Session* —zibil arloan auzitegi gorena— eta *High Court of Justiciary* —penal arloan auzitegi gorena—) batasuna eman aurretik bezala iraungo dutela, Ingalaterrako auzitegiekiko inolako menpekotasunik gabe. Auzitegi haietan aplikagarria den legeria ere bertakoa izango da, hitzarmenarekin bat ez datorrenean salbu. Dena den, Britainia Handiko parlamentuak arau hauek aldatzeko ahalmena dauka, eta baita egoki jotzen duenean batasun osorako lege uniformeak ematekoa ere.

Beraz, eskoziar auzitegiak erakunde independente bezala mantenduko dira, eta berdin eskoziar araudia. Hala ere, hainbat arlo juridikotan, esaterako merkataritza eta sozietate Zuzenbidean, lehen aipaturiko uniformitatea eman ohi da; baina ez gobernu zentralaren ezarpen moduan, merkaturia hedatu eta bertan konpetentzia bermatzeko galdakizunen eraginez baizik. Beste hainbat arlotan, berriz, adibidez familia, nekazaritza edo oinordetza Zuzenbidean, bereizirik iraun dute eskoziar eta ingeles arau-gorputzek, batez ere ohi-turazko zuzenbidean eta hitzarmenaren aurreko parlamentuak emandako legeetan oinarritzen direlarik.

Zuzenbide publikoan ordea, lehen esan bezala gobernu lokalari dagokiona salbu, Britainia Handi osorako araudi komuna nagusitu da. Aipamen berezia merezi du, aldi berean, Zuzenbide penalak eta bere aplikazioari dagokionak, hemen ere nortasun propioa duen sistema nagusitu baita. Gertakari zigorgarrien pertsekuzioa *Crown Office*-ren gain dago, eta erakunde honen buruzagitza *Lord Advocate*-ri dagokio, zeinek bere funtzioen egikaritzea alderdi politikoen eraginetik kanpo bete beharko lukeen. McCormick-ek sistema hau bi nagusien bide erdian kokatzen du, hau da, Ingalaterra edo Estatu Batuetan jarraitzen den akusaziozko sistema (*Adversarial*) izan gabe ere, Frantziako eta beste herrialdeetan jarraitutako inkisiziozko sistema (*inquisitorial*) gainditzen duena.

Eskoziar sistemak *Common Law*-ko ezaugarriak ditu batez ere: kodifikatu gabeko Zuzenbidea da (nahiz eta arau ugari parlamentuan lege bihurtu diren); interpretazio judizialak garrantzi handia du Zuzenbidearen garapenean; ohiturak eta XVII-XVIII. mendeetako idazki klasikoek eragin handia dute hainbat arlotan; Zuzenbidearen garapen modernoa ere neurri handi batean zorretan dago aurrekasu judizialarekin (*judicial precedent*), aplikagarri bihurtzen diren arauak askotan ez baitute aurrekasu bat edo sorta baten edukia beste oinarririk; ez dago karrera judizialik Espainian ulertzen den moduan, eta epaile eta magistratuak ospe profesionala lortu duten abokatuen artean izendatu ohi dira —modu horretan, epailetzan jardungo dutenak bertakoak izatea bermatzen da, eta ez Espainian bezala, non, Jiménez Asensiok esan duenez, epaile izateko oposaketa gainditu dutenen artean gehiengoa Autonomia Erkidego batekoak ziren (Madril)—; bestalde, abokatutza lanbidea bi maila desberdinetan sailkatzen da: *advocates* deiturikoak, hau da, maila goreneko auzitegien aurrean jarduten dutenak, eta *solicitor* deiturikoak, azpi-mailako auzitegietan aritzen direnak.

Esandakoak ez du esan nahi eskoziar Zuzenbidea europar kontinenteko egoeratik zeharo isolatuta mantendu denik. Historian zehar Herbehereak eta Frantziarekin izandako harremanei esker hainbat elementu jaso baitu europar Zuzenbide zibiletik.

Dena den, azken bi mendeetan *Common Law* ingelesera inguratzeko joera nagusitu da. Arrazoiak bi dira McCormicken ustez: noizbehinka Britainia Handiak bai Eskozian, bai Ingalaterran eta Galesen aplikagarriak diren arau komunak onartu dituela; eta, bestalde, judizial sistema biek auzitegi komuna dutela gainetik, *House of Lords* deritzaiona, eta apelazio azken auzitegia dena zibil arloan. Azken ehun eta hogeitabost urteetan, esperientzia handiko epaileez osatua egon da *House of Lords* auzitegia, eta hauetatik gutxienez bik, orain arte errespetatua izan den hitzarmen baten arabera, eskoziar auzitegietatik etorri eta eskoziar Zuzenbidean adituak izan behar dute. *House of Lords* bitarteko dela, ingeles esparruan sortutako auzia erabakitzean gorpuztutako doktrina honek eragina izango du Eskozian, baina baita ere alderantzizko kasuan.

Eskoziaren burujabetza prozesuan harrigarritzat jo daiteke lurralde honetan lege sistema propioa izatea botere legegilerik izan gabe. Egoera honen aurrean ezinbesteko ondorioa izan ohi da Wensminster parlamentuan noiz izango ote zen unetxo bat Eskoziari buruzko gaiak eztabaidatzeko zain egotea. Eskozia bezalako nazio batek —erakunde demokratiko propiorik gabea— ezin dezake aurrerantzean bere duintasuna mantendu burujabetza demokratikoan eta subsidiaritasunean oinarritutako mundu edo Europa batean. Batez ere Europar Batasunean, non nahitaezkoa den bere erabaki prozesuan eragina izatea eta kide bezala parte hartzea.

Norabide horretan, garrantzizko lehen urratsa 1999ko maiatzean emandakoa izan da. Galesekin batera, Eskoziak parlamentu propioa eskuratu du, ahalmen legegileak dituelarik, eta baita bere aurrean erantzukizuna duen exekutibo bat ere, Britainia Handiko parlamentu eta Gobernuak makro-ekonomia, defentsa eta kanpo-arazoetarako ordezkaritza mantentzen baditu ere. *Scottish National Party* alderdiak nahiagoko luke Eskozia Europar Batasuneko kide osoa bihurtzea, eta horretarako gaur egungo europar testuingurua aldekoagoa da 1707ko *Union State*-a baino. Dena den, ez du uste McCormickek soluzio federala aplikagarria litzatekeenik Britainia Handian, bertako nazio osagarrien artean oreka bat lortzeko dauden zailtasunen aurrean —biztanleria eta hedadura geografikoa batez ere—. Egungo egoera desiragarriagoa dela, hau da estatu kuasi-federala, esanez amaitu zuen.

Kronikaren egilea: Patxi ETXEBERRIA GURIDI
Zuzenbide Prozesaleko irakaslea
Euskal Herriko Unibertsitatea

Elkarrizketa

Neil MacCORMICK

Edinburgoko Unibertsitateko irakaslea

Europako Parlamentuko kidea



1.

Zeintzuk dira Erresuma Batuan Justiziaren Administrazioaren inguruan dauzkazuen arazo nagusiak?

Eskoizian, Justizia Administrazioaren egokitasunari buruzko zalantzak eta auziak ebazteko denbora luzea behar izatearen kontuak ez dira beste leku batzuetan bezain larriak, hein batean 110 egunen araua daukagula: inork ezin du auzia hasi baino lehen 110 egun baino gehiagoz atxilotuta egon, eta, azkenean, pertsona hori ez baldin bada epaitzen, aske utzi beharko da. Horregatik, nahiko azkarra da gure Justizia penala, eta zibila ere antzeko. Erresuma Batuan daukagun arazorik handiena ez da Justizia Administrazioa moteltasuna.

Arazoen artean, Justizian sartzeko dauden aukerak eta laguntza juridikoaren sistema behar bezala mantentzeko arazoak aipatuko nituzke, orain bertan dagoen aurrekontua ez baita nahikoa, kostuak gero eta handiagoak dira-eta.

Botere Judizialaren independentziak ere sortzen du arazorik. Parlamentu eskoziarra berrezarri zenetik, Eskubideen Hitzarmen Europarra errespetatu behar dugu, orain gure Zuzenbidearen zati baita. Gainera, aldi baterako epaileak izendatzeko bideetako batzuk bateraezinak bihurtu dira prozesua zuzena izateko eskubidearekin, auzitegiak inpartziala izan behar baitu, eta, bestetik, Zirkulazio Zuzenbideko zenbait praktika berrik norbera ez inkriminatzeko eskubidea urratzen duela ikusi da. Auzitegien erregimen zaharreko egitura eta agindu konstituzional berriak aurrez aurre ipin ditzakeen arazoak dira.

2.

Zein arazo sortzen dira epaile bihurtzeko moduen inguruan?

Aldi baterako epaileen kasuan, nola hautatzen diren ikusi behar da. Denbora luzean Botere Exekutiboak izan da hauek izendatzen zituena, *Lord Advocate*¹ delakoa, Koroaren ministro eta Gobernuako kide dena. Orain arte nahiko independentea izan da *Lord Advocate*, baina berrezarpenaz geroztik *Cabinet*-eko kide bihurtu da, eta jendea ez zaio gustatzen epailetzan sartzeko aukerak politikariek harremanetan egotearen menpe egotea.

Luze eztabaidatu da epaileak izendatuko lituzkeen batzorde bat eratzeari buruz, non Exekutiboak ere parte hartu ahal izango lukeen, baina ez berak bakarrik.

3.

Epaileen trebakuntzari eta epaile bihurtzeko moduari dagokienez...

Eskoizian ez dago sistema napoleonikora igarotzeko asmorik, magistratuak espezialista adituak bailiran. Epaileen jatorria abokatutza da oraindik ere; esperientziaren bidez arrakasta lortzen dutenak iristen dira epaile izatera.

1. Konstituzio britainiarraren tradizioan, gauzak agitz ezberdinak dira. Alegia, eskoziar sistema juridikoa berezia denez, Erresuma Batuko gobernuan, *Lord Chancellor*-aren ondoan, Justizia Ministerio berezi bat dago Eskoziarako (*Lord Advocate*), eta beste bat (*Lord Chancellor*) England and Wales-erako. Gobernutik at dauden ministroak dira hauek, *Attorney General* edo fiskal nagusia bezala, eta Ministroen Kontseilura, Cabinet bileretara joan daitezke Justiziari buruzko gaietarako. Orain, eskoziar autogobernu berriarekin, *Lord Advocate* bilakatzen da Eskoziako Justizia Ministro.

Ingalaterran bezalaxe, bereiztu egin behar dira batetik *abokatuak*² (*advocates*), auzitegi gorenetan dabilzatenak, eta bestetik *solicitors* direlakoak, batik bat bulegoetan aritzen direnak, nahiz eta auzitegietan ere ari daitezkeen, baina xumeagoetan. Halere, aldaketak izan dira, eta orain azken hauek eskubidea daukate auzitegi gorenetan ere aritzeko. Beraz, orain artean *sheriff* edo epaile lokala izan den *solicitor* batentzat hasiera batean posible da auzitegi goren bateko epaile bihurtzea. Oraingoan, hala ere, ez da horrelakorik gertatu.

Eztabaida nagusiak emakumeen parte-hartze txikiagatik sortzen dira, auzitegi gorenetan bi besterik ez daudelako epaile lanetan, baina datozen urteetan hori azkar aldatuko dela iruditzen zait.

4.

Zer deritzozu europar espazio judizial bateratu edo harmonizatu bat izateari buruz? Egokia izango al litzateke? Nola gauzatu beharko litzateke?

Ez dakit zer esan. Duela gutxi hasi naiz aukera horiei buruz pentsatzen, Europar Parlamentuko Gai Konstituzionaleko Komiteko eta Gai Juridikoetako Komiteko kide naizelako, baina oraindik ez dut oso garbi ikusten norantz jo beharko genukeen.

Subsidiaritate printzipioaren arabera, aproposagoa da harmonizazioaren bidea, nazioarteko gailur edo hitzarmenen atzean ezkutatzaren botereetsuek araudi komuna inposatzea baino. Baina badira interes orokorreko zenbait alor, integrazioa eta Europar Batasuneko erakundearen iruzurra batik bat, Santerren Batzordearen gain-behera sortu zuten arazoekin lotutakoak biak. Hobeto kontrolatu behar dira iruzur eta zabarkeriak. Gaur egun OLAF daukagu ikerketak egiteko, baina, zer gertatzen da behin ikertutakoan? Badirudi europarrek Batasuneko erakundearen osotasuna babestuko luketen arau komunak beharko lituzketenaren ideia indartzen ari dela. Horrek esan nahi du Zuzenbide Penal federal modukoren bat beharko dugula zenbait helburu lortzeko.

5.

Epaile lokalek ere aplikatu ahal izango luketena.

Bai, baina arrazionalizazioari eta prozedurak harmonizatzeari dagokionez, oso zaila izango litzateke Irlanda, Ingalaterra eta Eskoziako jendeak epaimahaiek garrantzirik ez dutela pentsatzera iristea, eta prozedura kriminal inquisitoria akusatoria baino hobea dela konbentzitzea. Frantzia bertan, gero eta gehiago dira eredu akusatoriora hurbiltzearen aldeko aldaketak aldarrikatzen dituztenak.

Nire ustez, oraindik ere gauza batzuk behar ditugu denok abiadura berdinean joateko: (i) Zuzenbide Penal federal minimalista, Europa mailan aurreikusi behar diren krimenekin lotuta egongo dena, (ii) eta harmonizazioari buruzko elkarrizketak. (iii) Baina, nire ustez, Justiziaren Administrazioa lokala da beti. Jardunaldi hauetan zehar norbaitek esan duen bezala, ez du axola zein den erabiltzen duzun Kodea. Auzitegiaren praktika lokalari jarraituko diozu, abokatuak elkarte lokalarekin eta auzitegi lokalarekin jarriko dira harremanetan, aldaketa lokalak egongo dira. Eta, gainera, horixe dio subsidiaritate printzipioak: jendeari hori egiten utzi behar zaiola, bere etxean dagoelako. (iv) Jakina, garrantzitsua da auzi egokiari eta horrelakoei buruzko oinarritzko elementu komun batzuk edukitzea... Europar Hitzarmeneko eskubideak gutxienez errespetatu eta aintzakotu behar dira. Orain bertan eztabaida hori daukagu Europar Batasunean: ez ote dugun Europar Batasuneko Eskubideen Karta bat ere beharko.

6.

Errazagoa dirudi alderdi sustantiboak harmonizatzea, tradizio judizialei dagozkien alderdiak baino. Globalizazioaren galderara garamatza honek. Zein erronka dauzka Justiziaren Administrazioak multinazionalen aurrean (hala nola kontratuak egiteko askatasuna, fabrikak estatu batetik bestera eramatea...)? Eta zer esango zenuke teknologia berrien garapenaren inguruan?

Harreman handiagoa daukat bigarren alderdi horrekin, negu honetan denbora luzea emango dugulako Europar Parlamentuan merkataritza elektronikoari buruzko direktiba lantzen. Sinadura elektronikoei buruz ere

2. Ingalaterran *barristers*.

aritu gara jada lanean, eta laster informazioaren arorako *copyright*-arekin hasiko gara. Bide batez esango nuke produktuen gaineko erantzukizunari buruzko oso direktiba interesgarri bat prestatzen ere aritu naizela.

Esan beharrik ez dago mundu mailako merkataritzan aritzen diren konpainiak ez direla handiak bakarrik; txiki eta ertainak ere aritzen dira, Internetek ez baitauka mugarik. Denbora berdina behar da Donostia Madrasekin eta Madrilekin komunikatzeko. Hizkuntzaren arazoa egon daiteke hor, baina garaiotako garapenaren ezaugarrietako bat ingelesak izan duen nolabaiteko unibertsalizazioa da, merkataritzako hizkuntza bihurtu baita, eta argi dago hor arau komun batzuk behar ditugula. Gainera, iruditzen zait legearen garapen eta harmonizazio prozesu honek multinazional handiek norbanakoen askatasunentzat suposatzen duten arriskua murrizteko eremu legal bat sortzen lagun diezagukeela, ez daitezen dirua hartu eta mugaz bestalde igarotzearekin ordenamendu juridiko desberdin baten pean ipini.

Beraz, bi zentzuetarako joera dago. Esana daukat multinazional eta korporazio handiak beren barrua aldatzen hasiko direla, egitura hierarkiko piramidalen ordezkari askoz ere hierarkia apalagoak ezarritik, eta baltzuez osatutako baltzuen itxura hartzen. Azken batean, etorkizuneko aholkularitza enpresa handiak ez dira zehatz-mehatz enpresa xumeak izango, bakoitza bere eskumenean sartuta dagoelako, baina egitura berdina daukate guztiek, eta etorkizunekoak horrelakoak izango dira gutxi gora-behera.

Edonola ere, arrazoiak daukazula uste dut. Askoz ere lehenago gertatuko da Zuzenbide sustantiboaren harmonizazioa prozeduren uniformizazioa baino, edo egitura unibertsaleko auzitegiaren baten sorrera baino, azken hau ez baita sekula sortuko.

Oraingoz, hau da globalizazioari buruz esan dezakedan guztia. Interesgarria da jardunaldietan aipatu dena: globalizazioa lokalizazioarekin lotuta dagoela. Merkataritza indartzen eta handitzen ari diren aldi berean, jendea autogobernurako modu eraginkorrak eskatzen ari da. Beharbada, norberak bere bizitza kontrolatu nahi izatearekin uztartu behar da hau guztia, nahiz eta dagoeneko mugarik gabeko mundu batean bizi.

7.

Azken galdera honek zure bizitzako bi alderdi ukitzen ditu. Jurista eta Zuzenbidearen teorizatzaile bezala mundu guztian ospetsua izateaz gain, europarlamentarioa ere bazara, Scottish National Party-ren (*Eskoziako Alderdi Nazionalista*) ordezkari gisa. Nazionalismoak ba al dauka lekurik Zuzenbidearen teorian? Eta, bestetik, nola erantzun diezaieke Europak Estaturik gabeko nazioen eskakizunei?

Nik uste dut Zuzenbideak baduela hor zer esan. *Questioning Sovereignty* izeneko liburu bat argitaratu dut duela gutxi, eta azpiztitulutzat *Law, State and Nation in the European Commonwealth*³ ipini diot. Zuzenbidea, Estatuak, *Rechtsstaat* aztertu behar ditugu, eta gero nazio-Estatua nahiz nazioa Zuzenbidearekin lotu. Gainera, "nazionalismoa"-ren ideala errespetagarri eta onargarria izan dadila lortu behar dugu, eta horretarako bide bakarra dago: partikularitate unibertsalgarria izatea. Autodeterminazio lokalerako eskubidea balore unibertsala da, unibertsalki egikaritu beharko litzatekeena.

Gai hauek garrantzi berezia daukate Europan. Poz handia ematen dit Europar Parlamentuan, SNPko kide izanik, Berdeak-Europako Elkarrekin Alboan (*The Greens-European Free Alliance*) eserita egoteak: Eusko Alkartasuna, Eusko Alderdi Jeltzalea, Galiziako Alderdi Nazionala, Andaluziako Alderdiak, Flanders Party eta Welsh (Paid Cymru). Europar Parlamentuaren ikuspegitik Europako erregionalismoarentzat egokiena izan daitekeena bilatu nahiean gabe. Eta argi daukat kide Estatuok Bavaria eta tankerako beste eskualde burujabeekin harremanetan jarri beharko genukeela, oso garbi ikusten baitute nazioen baitan daukan presentzia.

"Estaturik gabeko nazioez" mintzo gara, baina egiaz "Estatu osorik gabeko nazioak" ditugu. Euskal Herriak bere-bereak dituen erakundeak dauzka. Eskoziak sekula ez du Estatuok erakunderik galdu, beti erdi Estatuak izan baita auzitegien eta Elizaren egitura zaharren ondorioz. Egin beharreko galdera da:

3. Oxford: Oxford University Press, 1999.

Estatuaren zati bat baino ez den nazioak Estatu bihurtu behar al du? Nolako Europa sortuko dugu? Euskaldun edo eskoziar batentzat ironikoa da Latvia, Estonia edo Eslovenia kide Estatu bihurtzen ikustea *acquis communautaire* eskuratu bezain laster, Justizia Zuzenbidea aplikatuz administratzen dutela erakusten, eta beren ekonomia Batasunaren irizpideen arabera dela. Esloveniak bi milioi biztanle eta lurralde txiki bat dauka, eta Estatu handi batetik atera berria da.

Beraz, Europak kanpoan utzi dituen unitateak zeintzuk diren galdetu behar diogu beti gure buruari. Nik uste dut eskoziarren gehiengoak ez dituela inolaz ere Ingalaterrarekin dauzkagun harremanak eten nahi, Iparraldeko eskualdeek bezala, Estatu desberdinak izan arren oso lotura handia baitaukate beren artean. Ikuspegi horretatik, bi etorkizun mota ikus daitezke: (i) bataren arabera, Europa federazioen federazioa izango litzateke, (ii) baina orduan galdera bat sortzen da: zergatik beharko luke Portugalek araudi bat eta Euskadik beste bat? Zergatik beharko luke Irlandak Estatu bat eta ez Eskoziak? Antzeko neurri, biztanleria eta berezitasunak dauzkate, baina zama desberdina daukate Europar Batasunaren baitan. Gobernuarteko Konferentziak gai hori kontu handiz aztertu ezean, kide Estatu izateko zailtasunak dituztenen eskariekin egingo dute topo, Europak horrelakoak barneratzea kanpoan uztea baino egokiagoa dela aldarrikatzen baitute. Hain zuzen ere Eskozian hori lortzearen alde ari da nire alderdia lanean.

Elkarrizketatzailea: Joxerramon Bengoetxea
Itzultzailea: Koro Garmendia



Kronika

Alemaniar eredu

1. Sarrera

Bai tradizioz, baina batez ere egungo Konstituzioa kontuan hartuz, herrialdeen (*Länder*) inguruan dago antolatuta alemaniar Justizia. Justizia antolaketa modu hau *Länder*-en —hau da, Federazioa osatzen duten Estatu— aginpidean egikaritzen da, epaile federalak eta Auzitegi Konstituzional federala salbu —eskumena Federazio osoan baitute—. *Land* bakoitzak bere Konstituzioa eta Auzitegi Konstituzionala ditu. Alemaniar historian zehar, batez ere azken urteotan, denboraldi laburrez bakarrik egon da Justizia zentralizatutik: 1934 eta 1945 bitartean.

Sistema judizial alemaniarrek paradoxikoa dirudi: aplikagarri den legeria materiala, eta baita ere prozedura, judizial organizazioa eta epaile-magistratuen estatutuari buruzko kodeak, Konstituzioaren arabera Federazioaren eskuduntzapean dauden materiak dira, baina Justiziaren funtzionamenduari dagokionez, *Länder* desberdinek dute eskuduntza: epaile eta magistratuen hautaketa, maila-igoera, diziplina; hau da, epaile-magistratuen estatutu eta formazioari buruzko garapena.

Sarrera moduko hau egin ondoren, Lübeck-eko Justizia Auzitegi Goreneko presidente den Hans-Ernst Böttcher-ek bi zatitan banatu zuen bere hitzaldia, historiko ikuspegitik aztertua lehendabizikoa eta justiziaren egungo egoera azalduz bigarrena.

2. Alemaniar sistema testuinguru historikoan

Alemaniarren lehenengo batasuna XIX. mendean (1871an) lortu zen. Egitura aldetik, *Länder*-etan oinarritzen zen botere zentrala. Ondorioz, Estatu osoan komuna den legeria bi botereen (zentrala eta *Länder*-ena) arteko paktuen emaitza da. Inperioaren garai honetan, zentralizatutako legeria indartsu bat sortzen da (*Reich Justiz*): Kode Penal, Prozedura Zibilaren Kodea, Prozedura Penalaren Kodea, Organizazio Judizialaren Kodea, etab. Inperio osoko araudi honekin batera *Länder*-ak existituko dira, eta beraien ardurapean egongo da justizia arloko baliabide pertsonal eta materialen kudeaketa.

1934tik 1945era bitarteko parentesia —aurrekoarekin eta ondorengoarekin konparatuz— egitura guztiz desberdin bat gauzatu zen. Printzipio politiko zentralista batean oinarrituz, Justizia Administrazio osoa, eta baita baliabide pertsonal eta materialak —hots, hauen kudeaketa—, Estatu zentralaren eskuduntza soilak bihurtu ziren.

3. Justiziaren egoera alemaniar *Länder*-etan

Bigarren Mundu Gerra ostean, sistema federala gauzatu zen Alemanian, hizlariaren esanetan aliatuen eragina nabarmena izan zelarik zentralizazioaren arrisku berri bat ekidin nahian. 1949ko Konstituzioaren arabera, 16 *Länder*-ek osatuko dute Alemania, bigarren batasuna (1990an) eratu ondoren, eta Errepublika Federalaren egitura politikoa, lehenagoko DDRn, zabaldu ondoren.

Jurisdikzioa (eremu horretan dauden eskuduntza eta ahalmenak), berriz, Estatu eta *Länder*-en artean banatzen da. Ondorioz, Auzitegi Konstituzionala eta Auzitegi Federalak (antolakuntza, epaile eta magistratuen estatutu pertsonala, baliabideen kudeaketa, etab.) Federazioaren menpe mantentzen dira. Gainontzeko Auzitegi eta Epaitegiak, Ministerio Fiskala, eta pertsonal eta material baliabideak, *Länder*-ek egikaritutako eskuduntza ditugu, ordea.

Honek guztiak esan nahi du *Land* bakoitzak benetako Botere Judizial bat eraiki eta garatzen duela bere baitan. Eta Estatu mailan —Federazio mailan, beraz— beste Botere Judizial bat gauzatzen dela. *Land* bakoitzaren eskuduntzak —eta bere baitan Justizia Ministerioak— ondoko esparru hauek arautzeko ahalmena ematen dio: epaile eta magistratuen sarbidea Botere Judizialean, prestakuntza —jatorrizkoa eta



iraunkorra, hots, hobekuntza—, estatutu pertsonala, ahalmen diziplinarioa, etab. Ministerio Fiskala ere Estatu federatu edo *Land* bakoitzak arautzen du. Honen guztiaren arabera, azpimarratu behar dugu Alemanian benetako 17 Botere Judizial desberdin daudela: alde batetik 16, bat *Land* bakoitzean, eta Federal bat.

Praktikan, deskribatu dugun egoerak honelako ondorioak ditu adibidez: ohiz, epaile eta magistratuen bizitza profesionala *Land* bakoitzaren mugen barnean garatzen da jubilatutako arte, eta harritzekoa da *Land* batetik bestera arrazoi profesionalak direla medio joatea. Joera hau, dena den, aldatu egin da neurri txiki batean, Alemaniaren batasunaren ostean igo egin baita ekialderantz joan diren magistratuen kopurua.

Esan beharra dago ere, logikoa denez, harreman estuak daudela Estatu federatu eta Federazioaren artean. Adibidez, *Länder*-ek (Justizia ministroek) magistratu federal eta Auzitegi Konstituzionaleko magistratuen hautaketan parte hartzen dute. Federazioko Justizia ministroari dagokio *Länder*-etako Justizia ministroen koordinakuntza, eta hau bermatzeko organo berezi eta iraunkor bat dago. Aipatutako organoan, ministro federalak botu bakar batekin hartzen du parte erabakiak onartzean.

Azkenean, eta egoeraren elementu garrantzitsuenak aztertu ondoren, hau da jurisdikzioaren mailan lor dezakegun ideia nagusia: gaur egungo Alemanian, orokorrean, Estatu federatu eta Federazioaren arteko oreka dagoela; alde batetik, bi mailatan (Federazio eta *Länder*) eguneroko jardueraren independentzia bermatuz, eta bestetik, goi mailako koordinazioaren bitartez.

Hizlariak apuntatutako abantaila nagusienetakoa da epaile eta magistratuek lan egiten duten Estatu federatuko benetako auziak ezagutzen dituztela, hau da, nolabaiteko hurbiltasun edo inmediazioa dagoela. Desabantaila bezala, ordea, mugikortasun ezak epaileen artean sortarazten duen endogamia antzekoa aipatu zuen, nahiz eta Zuzenbide ikasleen aldetik mugikortasun handia eman.

Hizlariak egindako azken aipamena, Giza eskubideen babesa izan zen. Alemanian sistema difusoa/sakabanatua dute, hau da, Auzitegi bakoitzak *Land* mailan burututako kontrola, eta ondoren —eta helegite arruntak agortuz gero— Kasazioa. Azkenik, Auzitegi Konstituzionalak gauzatuko du babesa Federazio mailan.

Kronikaren egileak: Iñaki ESPARZA LEIBAR
Patxi ETXEBERRIA GURIDI
Zuzenbide Prozesaleko irakasleak
Euskal Herriko Unibertsitatea



Kronika

Suitzako eredu

1. Sarrera eta orokortasunak

Abiapuntu gisa esango dugu Suitza (7.096.000 biztanle 1998an) herrialde hizkuntzanitz eta multikulturala dela. Adibidez, lau hizkuntza ezberdin ofizialak dira aldi berean: alemana (gehien erabiltzen dena, % 63,6), frantsesa (% 19,2), italiara (% 7,6) eta, azkenik, *romanchea* (% 0,6k mintzatzen dutena).

Ikuspuntu politikotik, Suitza —eta hau garrantzi handiko ezaugarria da— estatu neutrala izan da tradizionalki. Ez bada Europar Batasuneko edo NATOko kide bihurtu, biztanleek nahi izan ez dutelako da. Suitzarrek “isolamendua” bilatu dute, eta kontu handiz neurtu.

Suitzako Konfederazioaren beste ezaugarri nagusienetakoa, demokrazia zuzena da; estatistiken arabera, mundu osoan urtero burutzen diren erreferendumen erdiak, Suitzan ospatzen dira.

Suitzako Konstituzio berria 2000. urteko urtarrilaren lehenengoaz geroztik dago indarrean. Estatuaren egiturak ez du aldaketarik jasan Konstituzio berriaren eraginez, hots, formalki eguneratu egin da 1874.eko testu zaharra, baina ez du funtsezko aldaketarik suposatu.

Beraz, Suitzako Konfederazioa 26 estatu edo kantoik osatzen dute, eta multzo horri batasuna emanez, azpiegitura gisa, Konfederazioa dago. Kantoien eta Konfederazioaren arteko harremanak lau prinzipio nagusien arabera gauzatzen dira: autonomia, parte-hartzea, superposizioa eta eskuduntzen banaketa.

Kantoi konfederatuak *cuasi* estatuak dira praktikan, guztiek subirano diren Estatuak egikaritzen dituzten ahalmen berberak dauzkatelako, hau da, legegilea, exekutiboa eta judiziala.

2. Antolakuntza judiziala Konfederazio eta kantoï mailan

Konfederazioaren barnean, botereen banaketa ez da simetrikoa; desberdintasun nabarmenak daude kantoï batetik bestera. Egoera honen arrazoiak, Konstituzioak emandako benetan sakona den autonomia da.

Aurrekoa esan ondoren, aipatu beharra dago botereen banaketa —eta orain aztertzen ari garen kasuan, baita Botere Judiziala ere— irizpide nagusi batzuen aplikazioaren bitartez egiten dela. Ondorioz, eta orokorrean, esan dezakegu antolakuntza judiziala honela banatzen dela Konfederazio eta kantoïen artean:

Zibil arloan

Lege material nagusiak, adibidez Kode Zibila, Konfederazioaren ardura dira.

Lege jurisdikzional nagusiak, adibidez, judizial antolakuntza edo zibil auziperatzea arautzen dituztenak, kantoïen eskuduntza izango dira.

Penal arloan

Lege material nagusiak, adibidez Kode Penala, Konfederazioaren ardura dira.

Lege jurisdikzional nagusiak, adibidez, judizial antolakuntza edo penal auziperatzea arautzen dituztenak, haien gauzaketa eta ondorengo garapena, kantoïen eskuduntza izango dira.

Konfederazioak ez bezala, kantoiek antolakuntza judizial osoa dute barnean, maila desberdinetan sailkatua. Beraz, ez dago, salbuespenak aparte utzita, Auzitegi Federalen antolakuntzaren pareko bat. Ondorioz, Auzitegi kantonalek Zuzenbide federala aplikatzen dute oro har.

Antolakuntzaren tontorrean, eta legeria federala modu zuzen eta uniforme batean aplikatzeko helburarekin —nolabaiteko kasazio federala—, Auzitegi Federal bat dago zibil eta penal arloetan, 30 kidek osatzen dutena.

Prozedura jurisdikzionalak, helegiteko aukerak, antolakuntza jurisdikzionala, etab., aldakorrak dira kantoi batetik bestera. Eta kantoi bakoitzak bere Auzitegi Gorena izango du.

Organo jurisdikzionalen osaketari dagokionez, esan beharra dago ohiz presidentea epaile profesionala dela; gainontzekoak, aldiz, epaile hautatuak, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Oinarrizko eskubide konstituzionalak urratzerakoan, badago Auzitegi Federaletara jotzeko aukera ere. Beraz, Auzitegi Federalen eskuduntza bikoitza da: alde batetik, aipatutako kasazio federala ezagutzea (*Juge ordinaire*/epaile arrunta jardura), eta bestetik oinarrizko eskubide konstituzionalen urrapenen kasuak (*Juge constitutionnel*/epaile konstituzional jardura).

3. Kantoi ezberdinen autonomia maila

Aurreikusi dugunez, eta Suitzako Konstituzioaren arabera, Justizia Administrazio arloan benetan sakona da kantoiaren autonomia. Beraiei dagokie —dagokien mailan; beraz, jurisdikzioa barne— antolakuntza judizial osoa arautzeko eskuduntza (Auzitegiak, epaile eta magistratuen estatutu pertsonala, instantziak, eskuduntza banaketa, prozedura jurisdikzionalak, ikuskaritza, etab.).

Esan dugunez, magistratuen hautaketa ere estatu konfederatuen (kantoiaren) ahalmena da. Jurisdikzioan epaile eta magistratu gisa parte hartzeko, sarbide sistema zabalduek hautaketarena dugu. Praktikak erakusten duenaren arabera, eta orokorrean —berezitasun asko baitaude kantoiaren artean—, kantoi bakoitzeko Ganbara Legegileak burutuko du hautaketa magistratu nagusiak izendatuz. Gainontzeko epaileak hiritarrek aukeratuko dituzte hauteskunde zuzen baten bitartez.

Jurisdikzioan (kantoi mailan) jarduteko hizkuntza ofizialak hiru dira Konfederazio osoan: alemana, frantsesa eta italiera —*Romanche*-aren ofizialtasuna Grisons-eko kantoiara mugatzen da—. Kantoi bakoitzak erabakiko du ofizialtasunaren zabalera; ondorioz, kantoi elebakarrak, elebidunak, edo hiru hizkuntza ofizial dituztenak aurki ditzakegu. Beraz, ofizialtasunaren arabera gauzatuko dira harremanak Justizia Administrazioarekin. Adibidez, Fribourg-eko kantoiaren (franko-alemana) ez dago italiera —ofizialki eta jurisdikzioaren aurrean jarduteko— erabiltzeko eskubiderik —beste gauza desberdin bat izango da interpretea erabiltzeko eskubidea—.

Jurisdikzioaren maila konfederalean, lau hizkuntzek mugagabeko ofizialtasuna izango dute.

Jurisdikzio kantonal guztien homologazio proiektu bat bultzatu nahi da, gutxienez prozedurak eta judizial antolakuntza bateratzeko eta egoera orokorra, dagokigun arlo honetan, hobetu eta eraginkortzeko. Momentuz ez da gauzatu aipatutako proiektu hau.

Azkenik, hizlariak estatu konfederatuen eskuduntzen mugak orokorki deskribatu zituen; hala, kantoiek ez dute izango nazioarteko harremanak edo zenbait materia garrantzitsu (adibidez giza eskubideak) arautzeko ahalmenik.

Kronikaren egilea: Iñaki ESPARZA LEIBAR
Zuzenbide Prozesaleko irakaslea.
Euskal Herriko Unibertsitatea.

Elkarrizketa

Pascal MAHON

Zuzenbide Konstituzional eta Konparatuko irakaslea

Neuchâtel-eko Unibertsitatea (Suitza)



1.

Nolakoak dira Suitzan Zuzenbide ikasketak?

Unibertsitateak kantai bakoitzaren esku daude, eta, beraz, kantai mailakoak dira ikasketa guztiak, politekni-koak ez beste, federalak izanik Estatu zentralaren esku baitaude. Kantoi bakoitzak erabakitzen du zein izango den ikasketen eta azterketen edukia. Ez dago, esate baterako, abokatu bihurtzeko estatu mailako azterketarik, baina abokatu bezala jardun ahal izateko gehienetan bi urteko pasantia eta kantai mailako azterketa bat gainditzea eskatzen zaie lizentziadunei. Horregatik, ikasketak eta azterketa Zurich-en egin dituen abokatu batek ezin du besterik gabe Neuchâtel-en jardun; lanean aritu nahi duen lekuko kantoiak ipintzen dituen ukanbeharrak bete beharko ditu. Hala eta guztiz ere, kantai bakoitzak duen eskuduntza hori apaldu eta abokatuei Suitza osoan aritzea baimenduko dien lege bat sartu nahi da indarrean, abokatuen zirkulazio librea ezarriko lukeena.

2.

Gustura al daude suitzarrak Justiziaren funtzionamenduarekin?

Orokorrean, baietz esango nuke. Arazo larri bakarra Auzitegi Federalak daukan gainkarga da —eta, ondorioz, prozedurak gehiegi luzatzen direla—; lan gehiegi pilatzen zaie auzitegiko 30 epaileei. Urtean 5.000-6.000 kasu bitartean ebaztu behar izaten ditu Auzitegi Federalak, eta, hori ikusita, erreforma bat prestatzen hasi dira. Halere, epaile kopurua areagotu beharrean —horrek jurisprudentziaren batasuna trabatuko bailuke—, Auzitegira iristeko galdapen gehiago jartzea da asmoa, eta, ondorioz, kasuen kopurua murriztea.

3.

Ongi funtzionatzen al du Justiziak kantai mailan?

Jendea orokorrean nahiko gustura dagoela esango nuke. Halere, kantai batzuetan hainbat arazo sortu dira, epaile postuak alderdi politiko batzuen monopolioaren menpe egon direlako denbora luzean; hala eta guztiz ere orain zabalagoa da ordezkartza —hori espero dugu behintzat—. Kantoiak maila federalean dagoen sistema bera ezartzeko ahaleginetan ari dira, epaile postuen banaketak alderdi politikoen oreka isla dezan, gure kasuan hori delako auzitegien independentzia ziurtatzeko modurik onena. Sistema alemaniarren antzekoa da, oso deszentralizatua baitago, eta ez dauka sistema judizial zentralizatuak (Italia, Frantzia edo Espainia) dauzkaten arazoak. Oso sistema deszentralizatua daukagu Suitzan, hiritarren gaindik hurbil dago Justizia. Baina hurbiltasun honek, hiritarrek epaileei eragiteko arriskua dakar. Izan ere, zenbait kantai txikitik hiritarrak dira epaileak hautatzen dituztenak, batzuetan oso epe labur baterako (zenbaitetan urtebetekoa). Nolanahi ere, horrek Justiziarekiko errespetua sortzen du.

Bada beste arazo bat ere: mugimendu demografikoek barruti judizialetan sortzen duten zatiketa. Eskualde batzuk oso jendetsuak dira, eta epaileak oso lanpetuta ibiltzen dira, baina badira oso jende gutxiak ere; kasu horietan, merezi al du epaileak mantentzea? Maila kantonalean nolabaiteko zentralizazioa bultzatzeko aukera aztertzen hasiak gara, abantaila ekonomikoak ekarriko lituzkeelako. Halere, auzipetuak eta hiritarrak ez daude horren alde, betidanik ezagutu duten justizia hurbilarekin jarraitu nahi dute-eta.

4.

Asko hitz egiten da demokrazia zuzenaz eta erreferendum legeegileez. Kritika batzuek kontserbadoreen aldekoak direla eta nolabaiteko urruntasuna gertatzen ari dela leporatu diete, jendeak dagoeneko ez duela parte hartzen.

Demokrazia zuzenaren edo erdi zuzenaren ereduak, hiritarrek gai garrantzitsuen inguruan daukaten iritzia ematen dute, eta egia da zenbaitetan batik bat kontserbadoreak izaten direla. Adibide tipiko bat, emakumeek botoa emateko eskubidearena da: Suitzak 1971n onartu zuen maila federalerako, Europako gainerako estatuek XX. mendeko lehen zatian zehar egin zutenean. Gizonezkoen eta kantoien botoa behar izan zen Konstituzioa aldatzeko; beste Estatuetan ez zen ordea horrelakorik egin behar. Hor argi eta garbi ikus daiteke demokraziaren joera kontserbadorea.

Arazo hori batik bat kanpo politikaren arloan agertzen da gaur egun. Suitzarentzat ez da erraza nazioartean bere fede ona frogatzea: hitzarmenak, eremu ekonomiko europarrak, etab. negoziatzen dituen arren, bozketa popularrak atzera botatzen dituzte gero, eta horrek ez dio Suitzari nazioarteko negoziazioetan fidagarritasunik ematen. Suitzan bertan oso eztabaida gogorak pizten dira Europaren aldekoen eta aurkakoen artean. Hiri suitzar-alemaniar handi gehienak alde daude, eta Suitza frantsesa ere bai, baina federalismoaren arazoarekin egiten dute topo. Europar Batasunari atxikitzeko ez da nahikoa jendea alde egotea; kantoï gehienek ere hala egon behar dute. Alegia, hiritarren erdia atxikipenaren alde egon arren, kantoï txiki askotako jendea konbentzitu behar da, eta oraingoz behintzat irmoki aurka daude —gogoan izan 1992ko abenduaren 6an ezezko borobila eman ziotela Esparru Ekonomiko Europarri—. Hala eta guztiz ere, nahiko ongi dabil demokrazia zuzenaren sistema hau.

Partaidetzari dagokionez, egia da ez dela handiegia. Kaskarra denean %30 izaten da, eta ona denean %45-50. Arrazoia oso sinplea da: bozketen maiztasuna. Suitzarrek lauzpabost bozketa izaten dituzte urtero, eta hori maila federalean bakarrik; gainera, bozketa bakoitzean gutxienez beste hainbeste gauzari buruzko iritzia eman behar da. Horiei kantoï eta komunatan egiten direnak gehitu behar zaizkie, askoz ere gehiago direnak, batzuetan nahiko gauza tuntunei buruz gainera. Partaidetzarik kaskarra izan zuena, lau rogei biztanleko komuna bat kantoï batetik beste batera pasatzearen inguruko bozketa baten kasua izan zen. Kantoï osoa mugiarazi behar izan zen hori erabakitzeko.

5.

Konstituzioaren aldaketei egin diezu aipu...

Suitza duela hogeita hamar urte inguru hasi zen bere Konstituzioa berrikusten. Berez 1848koa da eta 1874an berrikusi egin zen. Izan zen proiektu bat 1976an, baina berritzaileegia izanagatik ez zuen aurrera egin. Hala ere, hasitako prozesu hori nolabait salbatzearen, besterik ezean berrikuntza “kosmetiko” bat egitea erabaki zen; alegia, Zuzenbide konstituzionala hizkuntza modernoago batean berridaztea, forma sistematikoagoan eta hobeto egituratuta. Aipatu beharra dago Konstituzioari behin eta berriro egin zaizkiola berrikuspen partzialak (150 inguru 1874 eta 1999 artean); horrek, beraz, berrikuspenak egitearen errazatasuna ematen du aditzera. Nolanahi ere, hainbeste berrikuspen egin ostean zaila gertatzen zen testua ulertzea, batez ere artikuluko berri asko zeudelako bi xedapenen tartean —adibide bat ipintzearen, hamar artikuluko zeuden 34. eta 35. artikuluen artean—.

Konstituzioa eguneratzeak, beraz, hizkuntza argi eta modernoan berridaztea esan nahi zuen, baina edukia aldetik gehiegi aldatu gabe. Duela 150 urte hartutako konpromisoak berriro nahi ziren, eta horixe egin genuen. Hasiera batean ez genuen bere mamia aldatu nahi, behar adinako onespenei jasoko ez zutenaren beldur ginelako; horregatik, minierreforma formal moduko bat egin zaio. Hala eta guztiz ere, edukian ere badira berrikuntza txiki batzuk. Lehen aipatutako kasurako, adibidez, hots, komuna bat kantoï batetik bestera pasatzeko, aurrerantzean ez da erreferendumik egin beharko, horrek prozedura gehiegi astuntzen zuela ikusi zelako. Beraz, gauza batzuetan behintzat hobetu egin dugu sistema.

6.

Kantoien kanpo politikari buruzko ikerketak egin dituzu. Zeintzuk iruditzen zaizkizu alderdirik aipagarrienak?

Funtsean, eztabaida berdintsuak dauzkate, baina maila txikiagoan. Esaterako, kantoïek ba al daukate kanpo politikako eskuduntzarik? Eta beste eskualde edo Estatuarekin hitzarmenak sinatzekorik? Suitzan bai,



baldin eta arlo hori kantoien eskuduntzakoa baldin bada eta Konfederazioak ez badu arlo horri buruz nazioarteko hitzarmenik egin. Kantoi batzuen “kanpo politikarako” eskuduntza ez da aldamenekoekin harremanetan egotera mugatzen —adibidez, ez bakarrik eskualde frantsesekin—, baizik eta urrunagokoe-kin ere ari daitezke —kantoi batzuek Ertamerikarekin egin dituzte lankidetza akordioak—. Kantoien “kanpo politika zuzena” deitzen diogu horri, kanpo politika “txikia”.

Baina hemen beste arazo bat aipatu beharra dago: kantoiek kanpo politika “handian”, Konfederazioko kanpo politikan, parte hartzearen arazoa. Argi dago Estatu federaletan Estatu zentralak daukala kanpo politikari buruzko eskuduntza, unitarioetan bezalaxe —bestela, kanpo politika desberdin asko egongo lirateke, eta hori pentsaezina litzateke—. Baina Zuzenbidea gero eta gehiago nazioartekotzen ari dela-eta, baterakuntza europarraren ondorioz bereziki, kanpo politikak eta nazioarteko hitzarmenek barne politikan esku hartzeko joera daukate, edo behintzat bere edukia gero eta gehiago zehazteko. Eta kantoien eskuduntzako arloetan ere bai. Horren aurrean, kantoi suitzarrek elkartu egin nahi dute beren eskuduntza eta interesak babesteko —Länder alemaniar eta austriarrek egin duten bezala—, eta kanpo politika nazionala zehazterakoan informatu eta kontsulta dakien. Konstituzio berriak Konfederazioko kanpo politika zehazteko orduan kantoien ahotsa entzunarazteko mekanismoak jaso ditu: informazioa, kontsulta, nazioarteko negoziazioetan parte-hartzea, etab. (55. artikulua). Parlamentu federalak, gainera, Lege bat onartu zuen 1999ko abenduaren 22an, Konstituzioak horri buruz dioena zehazteko: *Kantoiek Konfederazioaren Kanpo Politikan Parte Hartzeko Lege Federala*.

Elkarriketatzailerak: Itziar Alkorta
Itzultzailea: Koro Garmendia



Kronika

Quebeceko eredia Kanadan

1. Sarrera

Andrée Lajoie irakasle kanadiarraren hitzaldiaren helburua Kanadaren sistema judizialaren egitura esposatzea zen. Esposaketa honen interesa, gehienbat, Kanadaren barruko botere politikoaren banaketaren aldetik zetorren. Ildo honetatik, bi atal nagusitan banatu zuen bere hitzaldia: alde batetik, Kanadako sistema judizialaren egituraren deskribapena, gehienbat bere lurralde zatiketaren aldetik. Bestalde, faktore horren eragina Botere Judizialak Zuzenbide egile bezala duen funtzioarengan. Bigarren atal honen garrantziaz jabetzeko, kontuan izan behar dugu Kanada *Common Law* sistemaren barruan dagoela, non auzitegiek ahalmen handia duten Zuzenbidea sortzeko.

2. Kanadako sistema judizialaren ustezko (sic) lurralde autonomia

1867ko Lege Konstituzionalak dioenez, probintziek beren gain daukate Justizi Administrazioa legislatiboki arautzeko eskuduntza. Nahiz eta adierazpen honekin Kanadan Justizi Administrazio autonomo bat dagoela iruditu, hizlariaren iritziz errealitatea oso urrun dago Legearen esanetatik. Ideia hau garatzeko, Kanadako sistema judizial trinkoa esposatu zuen.

Nahiz eta, lehen esan dugun bezala, printzipioz Justizi Administrazioaren eskuduntza —baita normatiboki— probintzien esku egon, Kanadako Konstituzioak berak printzipio honen garrantzizko salbuespenak ezartzen ditu. Horrela, *Cour Generale d'Appel* bat sortzeko ahalmentzen du Kanadako Legebiltzarra, bere eskumena estatuko lurralde osora zabalduko duela, eta honekin batera, finkatu gabeko beste auzitegiak, “*en vue d'assurer une meilleure exécution des lois du Canada*” (Kanadako legeak hobeto aplikatzearen). Ahalmen hauek gauzatuaz sortu dira Kanadan hiru auzitegi orokorrak: *la Cour Suprême*, *la Cour Fédérale* eta *la Cour Supérieure*.

Hau guztia kontuan izanik, auzitegiak hiru sistema ezberdinetan zatitzen dira: probintziako atala, atal bateratua (*palier conjoint*) eta atal federala.

Atal probintziala auzitegi probintzialek osatzen dute. Bere sorrera eta administrazioa —epaileen izendapena barne— probintzien esku dago. Eta eskumena probintziaren eremura zabaltzen da. Segidan, hizlariak Quebeceko eredia azaldu zuen. Probintzia honetan, hiru auzitegi ezberdin ditugu: *la Cour du Quebec*, *la Cour des petites créances* eta *les Cours municipales*.

Cour de Quebec-en eskumena hiru eremutara zabaltzen da: zibila, penala eta adintxikikoen gaietara. Honekin batera, zenbait kasutan arazo administratiboei buruz eta apelazioko organo bezala aritzen da. Horrela, Zibil aretoak 30.000 dolar kanadiarren kopuruko arazo mobiliarioei buruz ezagutzen du, eta Penal aretoak probintziako delituei eta zenbait delitu federaleari buruz.

Cour des petites créances, *Cour de Quebec*-eko Areto zibilaren sekzio berezi bat da eta bere ezaugarria ekitate auzitegia dela da, non abokatuen interbentzioa debekatuta dagoen.

Cours municipales-ek udal entitateen legeria penal zein zibilaren inguruko gatazkak aztertzen dituzte.

Tribunal administratif du Quebec-ek Quebec osora zabaltzen du bere eskumena eta bere funtzioak arlo administratiboan gauzatzen dira.

Atal bateratua, 1867. urteko Konstituzioa baino lehen indarrean zeuden auzitegiek osatzen dute, hark bereganatu zituenak. Osatzen duten epaileak *Gouverneur Général*-ek izendatzen ditu, baina probintziek badituzte beren gain zenbait eskuduntza administratibo. Atal honetan ditugu *les Cours supérieures*, aurrenauzialdiko funtzioak betetzen dituztela probintzia bakoitzean, eta *les Cours d'appel*, beren gain dituztela probintzia bakoitzeko bigarren auzialdiko funtzioak.



Azkenik, atal federala zentzu zabalean federalak diren auzitegiek osatzen dute —bai sorrera, bai administrazioa, botere federalaren gain daude— eta *la Cour fédérale* eta *la Cour suprême*-k osatzen dute. Azken honen garrantzia handia da zeren, azkenean, Konstituzioaren azken interpretatzailea da, gure sistemaren Auzitegi Konstituzionalaren funtzioak beteaz, besteak beste.

Sistema judizialaren administrazioaren aldetik, nahiz eta nominalki, lehen esan dugun bezala, arlo hau probintzien esku egon, esan beharra dago atal probintzialaz aparte, probintziek ezer gutxi egin dezaketela. Eta atal bateratuaren arloan, beren eskuduntzak eguneroko arlo administratibora bakarrik zabaltzen dira.

Epaileen aldetik, probintziek badute eskuduntza atal probintzialean, baina kontuan izanik maila bakoitzean epaileen benetako gobernua *Conseil de la magistrature* baten menpe dagoela, esan beharra dago, probintziek, soldaten ezarpen eta destinoaren ezarpenaz aparte, ezer gutxi egin dezaketela arlo honetan.

3. Auzitegiek Zuzenbidearen sorreran dauzkaten faktore gidariak

Hau guztia kontuan izanik, hizlariak bere buruari galdetzen dio Kanadak duen egitura judizialak benetako deszentralizazio bat dakarren edo ez. Ematen duen erantzuna nahiko zorrotza da: apelazioen egiturak eta epaileak izendatzeko sistema zentralizatuak sistemaren zentralizazio erreala dakarte.

Honekin batera, hizlariak beste galdera bat egiten dio bere buruari: epaileek, *Common Law*-ko sistema batean —Kanada bera bezala— Zuzenbidea sortzeko duten potestatea gauzatzekoan, kontuan hartzen al dituzte lurralde berezien eskakizun eta interesak? Hizlariak, azterketa soziologiko ugari burutu ondoren, honako emaitza lortzen du: epaileek giza kolektiboen interesak kontuan hartzen dituzte eremu berriak irekitzeko, nahiz eta zabalpen hauek arlo kritikagarri ugari izan, baina ezin genezake gauza berbera esan lurraldetar interesen kasuan, non epaileek kriterio zentralistetara jotzen duten behin eta berriro.

Kronikaren egilea: Jesús M^a IZAGUIRRE GUERRICAGOITIA
Zuzenbide Prozesaleko irakaslea
Euskal Herriko Unibertsitatea



Elkarrizketa

Andrée LAJOIE

Zuzenbide Publikoko irakaslea

Montreal-go Unibertsitatea (Kanada)



1.

Zein da Kanadan epaile bihurtzeko bidea?

Agintari federal eta probintzialek izendatzen dituzte epaileak, botere exekutiboak alegia, hau da, Lehen ministroak eta Justizia ministroak, direla probintzia batekoak, direla Kanadakoak. Abokatu Elkargoaren irizpena jasotakoan egiten dira izendapen hauek; beraz, epaileek urte kopuru zehatz batean zehar bertako kide izan beharra daukate, auzitegiaren arabera desberdina dena. Baina ez dute Epaileen Eskola batera joan beharrik, eta lehiaketarik ere ez dute egiten. Behin izendatu ondoren, mugiezinak dira, eta ez daukate promoziorik karre-ra judizialean zehar. Soldata finkoa daukate, bizitzaren kostuaren arabera baino igotzen ez dena.

Epaileak erabateko askatasuna dauka bere lanean. Legea interpretatzen du. Presio politikorik ere ez dauka; alegia, agintari politikoek izendatzen duten arren, ez dago inolako kontrolen pean. Gainera, izendapenak ez dira oro har txarrak izaten.

2.

Epaileen erabakietan eragiten duten faktore politikoak aztertzen aritu zara.

Bai, egoera bakoitzari lotutako faktore politikoak aztertu ditut, ez partiduen politikari dagozkienak. Auzitegi Gorenako epaileek 1982ko Konstituzioko 1. artikuluan jasotzen den "gizarte aske eta demokratiko" adierazpena interpretatu duten moduari buruzko ikerketa batzuk egin ditut. Galdera perelmaniar bat egiten genuen guk; alegia, epaileak bi alderdiren eskakizunak uztartzen saiatzen direla: batetik, elkarte juridikoa osatzen duen alderdi partikularrena, Zuzenbidea modu koherente batean interpretatuko dela itxaro duena, eta bestetik alderdi unibertsalarena, alderdi politikoek, komunikabideek, eta oro har gizarteak osatzen dutena, prozesu zehatz hori bidezkoa izatea nahi duena. Hipotesi hau berrindartu egin da, eta gainera aukera politikoak zenbateko eragina daukan ikusi ahal izan dugu. 1984 eta 1993 artean, "gizarte aske eta demokratiko" adierazpena hiru modu desberdinetan interpretatu zen. Lehenengoak gizarte ultraliberal bat ematen zuen aditzera, askatasun indibidualak babesten zituena, penalak bereziki: lankide amerikarren eragina jaso zuten epaile kanadiarren erreakzioa izan zen hori, amerikarrak aspalditik ari baitziren balore liberal klasikoen izenean kontrol konstituzional hori egikaritzen. Kanadan "lur hartu" zutenean, gizarte kulturantzun eta solidario bat proposatu zuten, ahulek Estatuaren babesa jasoko zutenekoa. Baina Neoliberalismoa iritsi zenean, gizartearen gaizkileen aurrean babestu behar zena; orduan, hirugarren irudi hau lehenengoaren guztiz alderantzizkoa zenez, interpretazioek aukera politiko orokorraren bideari jarraitu zioten.

3.

Azalduko al zeniguke pixka bat Québec-en sezesioaren inguruan Auzitegi Gorenak emandako erabakia?

Kanadako prokuradore orokorrak, "iritzi kontsultibo" bat lortzeko asmoz, helegite bat aurkeztu zuen Auzitegi Gorenaren aurrean, sezesioa ez Konstituzio kanadiarrak, ez nazioarteko Zuzenbideak ere ez zutela onartzen adieraz zezan. Auzitegiak esan zuen Konstituzioaren eta Nazioarteko Zuzenbidearen aurkakoa zela aldebakarreko sezesioa, hots, aurrez negoziatorik egin gabe gauzatutakoa. Baina ez zen hor gelditu. Quebecoko izapidetza errefendarioa legitimoa zela gaineratu zuen, eta gehiengoak baiezkua erantzuteak



sezesioaren baldintzei buruz negoziatzera behartzen zituela gainerako kanadiarrak. Ez zen zehazki hori agintari federal kanadiarrek entzun nahi zutena. Quebec ez zen Auzitegiara aurkeztu ere egin, ez baitzuen agintari federalen helegite hori legitimatu nahi. Baina Auzitegia ez zen tranpan erori. Hasteko, *amicus curiae* bat izendatu zuen (azaldu ez den alderdiaren interesak babesten dituen ofiziozko abokatu), eta “txapel batekin bi buru estali” zituen: bai kanadiarren jarrera, bai quebectarren pausoa, biak legaltasunaren barnean zeudela adierazi zuen. Oso iaioa izan zen, zeren eta arrazoi guztia agintari federaleari eman izan balie, banaketa eragingo zukeen, eta horixe zen hain zuzen ere ekidin nahi zena. Gobernu federalak baino hobeto zekien non zegoen bien interesa, izan ere, Auzitegiaren existentzia Estatu kanadiarrarenari lotuta baitago...

4.

Norbanakoek ba al daukate Auzitegi Gorenera jotzeko aukerarik?

Bai. Pertsona baten eskubideak lege edo egintza administratibo zehatz baten konstituzionaltasunaren menpe daudenean, pertsona hori lege edo egintza horiek aurkatu eta Auzitegi Gorenera iris daiteke. Baina horretarako beharrezkoa da auzi hori interes nazionalakoa izatea eta erabaki desberdinak jaso izatea apelazio auzitegi desberdinen aldetik (probintzia desberdinetakoak), edo apelazioko auzitegi bateko areto desberdinen aldetik.

5.

Azalduko al zeniguke, labur bederen, zertan den hizkuntza eskubideen egoera, eta, zehazkiago, *Beaulac* kasua?

Kanadan bi dira hizkuntza ofizialak, frantsesa eta ingelesa, eta Konstituzioak aurreikuspen desberdinak egiten ditu probintzia edo eremu bakoitzeko hizkuntza eskubideentzat. Ondorioz, eta Konstituzioko xedapen bati esker, gutxiengo frankofono edo anglofonoek, kasuan kasu, beren hizkuntzako eskolak sortzeko eskubidea daukate, “zenbatekoak justifikatzen duenean”, beti ere.

Baina epaitegietako hizkuntzaren inguruko xedapen espresurik ez dagoenez, auzitegiek orain arte eskubide judizialean oinarritu dute prozesua akusatuaren hizkuntzan egiteko eskubidea —prozesu zuzen eta bidezko baterako eskubidean batik bat, defentsa osorako eskubidean—. Akusatuak bere prozesuan jazotzen ari zena ulertzen zuela ziurtatu nahi zen horrela.

Beaulac kasuan frankofonoa zen akusatua, baina bazekien ingelesez. Jurisprudentzia zaharraren arabera, ez zuen kolonia britaniarreko auzitegien aurrean prozesua frantsesez garatzeko eskubiderik izango, gehiengo anglofonoko probintzia delako. Baina kasu honetan Auzitegi Gorenak goitik behera aldatu zuen jurisprudentzia, prozesua frantsesez garatzeko eskubidea aitortu ziolako, ez ordeak akusatuaren eskubide judizialean oinarrituz, baizik eta berdintasunerako eskubidean, hizkuntza eskubideei aplikagarri zitzaiela esan zuen-eta. Ordudanik, berdin interpretatu eta aplikatzen dira hizkuntza eskubide horiek bi hizkuntza erkidegoetan, bakoitza zabaldu ahal izateko.

Elkarriketatzailerak: Itziar Alkorta
Itzultzailea: Koro Garmendia



Kronika

EEBBetako ereduak

1. Sarrera

Bere hitzaldian, Estatuetakoa auzitegiek botere zentralak —batik bat Auzitegi Gorenak— hartutako erabakiei nola aurre egin diezaieketen azaltzen saiatu zen Rosenberg irakaslea. Azalpena bi ikuspuntu desberdinetatik egin zuen; alde batetik, Estatu Batuetan (EEBB) jazoriko borroka aipatu zituen, banaketa historikoa eginez. Beste aldetik, Auzitegi Federaletan Botere zentralaren erabakiak ez betetzeko erabiliriko baliabideak zeintzuk izan diren aztertu zuen, ikuspuntu analitiko batetik.

2. Ikuspuntu historikoa

Hasi aurretik, EEBBen eta Euskadiren jatorria oso desberdinak direla esan beharra dago: EEBBak hamahiru Estatu batu ondoren sortu ziren, bakoitzak bere gobernu eta lege-sistema zeuzkala. Gure kasuan, ordea, jatorriz Estatu zentralista izan da.

Ñabardura hori eginda, XVIII. mende bukaerako eta XIX. mende hasierako urteetan Gobernu zentralak zein EEBBetako Auzitegi Gorenak —Kongresuari eta *Judiciary Act*-eko 25. paragrafoari esker— botere handiak bereganatu zituztela aipatu beharrean gaude.

Garai honetan ere, Auzitegi Gorenak, *Chisholm vs. Georgia*, *Martin vs. Hunter's Lessee* eta *McCulloch vs. Maryland* epaien bitartez, Estatuetakoa Auzitegi Gorenako epaiak berrikusteko ahalmena zuela ezarri zuen.

Ekonomia arloan arautzeko eskuduntza bereganatzeko, Federazioak Gobernuak egindako ahalegi-na izan zen nabarmenena XIX. mendeko azken urteetan eta XX. mendeko hasierakoetan.

Hasiera batean, auzitegi federaletan eragotzi egin zioten Washingtonen Gobernuari —eta Estatu bakoitzeko gobernuari— finantza esparrua arautzeko eskumena, Konstituzioaren *Commerce Clause*-ko interpretazio murritzor baten bitartez —10. emendakinarri esker egina—. Horren ondorioz, bertan behera uzten zen lege mailako edozein interbentzio mota.

Baina Franklin D. Roosevelt presidente berrautatu eta berehala (1936), EEBBetako Auzitegi Gorenak gatazka honetan esku hartu eta uko egin zion aipatutako interpretazioari.

Berrogeita hamar eta hirurogeiko hamarkadetan, Hegoaldeko Estatuetakoa auzitegiek Auzitegi Gorenak giza eskubideen arloan emandako erresoluzioak ez betetzea erabaki zuten. Hegoaldeko erakundeek biztanle guztiei tratamendu bera eskaintzea nahi zuen Botere zentralak, haiek *apartheid* babes sutsua garatzen ari zirelako.

Aipatutako jarrera hamar urte inguruz izan zen nagusi hegoaldean, eskubide zibilen aldeko mugimendu eta garaipenak lege esparrua —batez ere 1964ko *Civil Rights Act* eta 1965eko *Voting Rights Act*— kolokan jartzea erdietsi zuten arte.

Esandakotik ondorio bat atera daiteke: Estatuetakoa botereek, beren artean koalizioak sortzeko gai diren heinean, Federazioak hartutako erabakiak ekidin ahal izango dituzte, herrialde batzuren borondatea ados jartzea lortuz.

3. Ikuspuntu analitikoa

Ikuspuntu analitikoan, gorago esandako jokabideak gauzatu ahal izateko erabil daitezkeen baliabideak hartzen dira aintzat; honako hauek, besteak beste:

- Gobernu Zentralak auzitegi federaletan emandako epaiak inpugnatzeko dauzkan aukerak mugatzea, eta azken interpretazioa Estatuetakoa Auzitegi Gorenaren esku egotea.
- Herrialdeetako Botereek epaileen izendapenean daukaten eraginaz baliatzea.
- Epaile bakoitzak eskura dauzkan baliabideak erabiltzea; esate baterako instrukzio eta interpretazioan, eta, beharrezkoa izanez gero, partzialkeriaren bidez.

Kronikaren egilea: Alberto SAIZ GARITAONANDIA
Eusko Jaurlaritzako beka-duna



Elkarrizketa

Gerald ROSENBERG

Zuzenbide Politiko irakaslea

Chicagoko Unibertsitatea (EEBB)



1.

Estatu Batuetako Estatu guztietan berdinak al dira Zuzenbide ikasketak?

Nahiko antzekoak bai behintzat. Estatu Batuetan graduondokoak dira Zuzenbide ikasketak, ikasleek beste trebakuntza bat jasotzen dute aurretik. Hiru urtekoak dira Zuzenbide ikasketak. Lehenengo urtea *standard* samarra da: *Common Law* anglo-amerikarra ikasten da (kontratuak, prozedura zibilak, jabetza, kalteak, Zuzenbide penala...). Ondorengo bi urteetan, ikasleek nahi dituzten ikasgaiak hautatzeko askatasuna daukate; gehienek Zuzenbide konstituzionala aukeratzen dute horien artean, nahiz eta badauden Lehenengo Emendakinari —besteak beste adierazpen eta erlijio askatasunak babesten dituen— eta Hamalagarrenari buruzkoak ere —prozesu egokirako eta berdintasunerako eskubideei buruzkoa—. Eta, era berean, elkarteei eta merkataritzari buruzko ikasgai asko daude. Gainera, Estatu bakoitzak bere legeak dauzkanez, Zuzenbide fakultate batzuetan Estatuko Zuzenbidea ikasteko aukera egoten da. Nolanahi ere, fakultaterik onenetan nazioko Zuzenbidea bakarrik irakasten dute.

Titulua eskuratzeko bete beharreko baldintzak unibertsitate bakoitzak finkatzen ditu, baina lanbidean jardun ahal izateko (agiriak sinatzeko, Auzitegietan aritzeko, abokatua izateko), *Bar* izeneko erakundean sartu beharra dago. Estatu bakoitzak berea dauka, eta berak ezartzen ditu bertako kide izateko betebeharrak. Bi gauza egin behar dira ia estatu guztietan: batetik, nazio guztian egun berean egiten den test moduko azterketa bat gaitzitu, eta bestetik, kide izan nahi duzun *Bar*-a dagoen Estatuak daukan Zuzenbideari buruzko idazlan bat prestatu. Honen guztiaren alderdirik zoroenetariko bat da Zuzenbideko ikasketak eduki arren eskola partikularrak hartu behar direla azterketa hauek prestatzeko, eta oso garestiak dira. Eta, horrela, klase hauek ordaintzerik ez daukaten ikasleak desabantailan gelditzen dira.

2.

EEBBetan, Auzitegi Gorenaren erabakien diskrezionaltasunari buruzko eztabaidak sortu dira. Positibisten ustez, Auzitegi Gorenak ez dauka diskrezionaltasunez aritzeko ahalmenik; beste batzuek, ostera —Dworkinek esaterako— baietz diote. Zer derizkiozu?

Zientzialari politiko eta legelaria naizenez, hori baino gehiago interesatzen zait zer gertatzen den Auzitegiak erabakiak eman ostean. Ez zait gehiegi axola zertan oinarritzen dituen bere erabakiak, baizik eta erabaki horiek gizartean desberdintasunak sortzen ote dituzten ikustea.

EEBBetako Auzitegi Gorenari dagokionez, Konstituzioak ez dio Gobernuko beste organoen egintzak inkonstituzionaltzat jotzeko ahalmen espresurik ematen. Horrek esan nahi du praktikan Gobernuko beste organoen eta hiritarren aldetik jasoko duen babesaren menpe dagoela bere erabakien eraginkortasuna. Eztabaida hori interpretatzeko modu bat haxe izango litzateke: erabaki batzuren aurka dauden amerikarrek esango dute erabaki horiek ez direla legean oinarritzen, eta alde daudenek, berriz, legearen arabera direla.

3.

***Statutory Law* edo Lege bidezko Zuzenbidea ugaritzen ari dela dirudien honetan, zein egoeratan dago *Common Law*?**

Oso osasuntsu. Hein batean, ezinezkoa delako 260 milioi biztanle dauzkan herrialde batean gauza guztiak arautzea. Eta ez dago liskarrik *Common Law*-ren eta *Statutory Law*-ren artean. Azken honetako arauak ere

interpretatu egin behar izaten dute epaileek, batzuetan bere esanahia ez delako oso argia, eta interpreta-
zio hori geroko kasuei aplikatuko zaie. Edonola ere, *Statutory Law* *Common Law*-ren gainetik dago;
Statutory Law-k *Common Law* alda dezake. Sarritan gertatzen da hori. Lehentasuna argi eta garbia da.
Statutory Law-rik ez dagoen kasuetan, berriz, edo oso argia ez denean, *Common Law*-ra jotzen da.
Amerikarrentzat hor ez dago gatazkarik.

4.

EEBBetako kultura legalean balio mitikoa du zinpekoen epaimahaiak.

Zinpekoen epaimahaiaren sistemaren oinarrian dagoen ideia da hiritar bat beste hiritar batzuek bakarrik
epai dezaketela. Nik uste dut Koroaren aurrean babesteko sortu zela Zuzenbide ingelesean, Koroa zuzena
ez izatearen beldur zirelako ingelesak. Lehenengo kolonizatzaileek Atlantikoa zeharkatu eta EEBBetara iri-
tsi zirenean areagotu egin zen arbitrariotasunaren beldur hori, erregearena baitzen Zuzenbidea. Hiritarrak
estatuaren abusuetatik babesteko bide bat zen zinpekoen epaimahaiak.

Baina “mito” hitzaren erabilera azaldu beharko genuke, EEBBetako auzi penaletan hain zuzen ere alderan-
tzizkoa gertatzen delako: ia inoiz ez da zinpekoen epaimahaiaren prozesurik izaten, ia inoiz ez delako auzi-
rik egoten. Horren orde, fiskala eta defentsa *plea-bargain* izeneko adostasun batera iristen dira.
Demagun, adibidez, auto bat lapurtu izana leporatzen dizutela. Auzitegira jotzeko eskubidea daukazu,
baina oso garesti eta luzea da, eta epaia aurreikustezina da bai zuretzat eta baita fiskalarentzat ere.
Horregatik, zinpekoen epaimahaiaren auzi bat eduki beharrean, adostasun batera iritsiko zara fiskalarekin:
lapurreta egin duzula aitortzearen trukean, zinpekoen epaimahaiak erruduntasun kasuan ipiniko lizukeen
zigorra baino arinagoa jasoko duzu. Beraz, mitoa da epaimahai bidezko epaiketaren kontua, amerikarrek
sinestu bai, baina ez dutelako bertara jotzen.

5.

EEBBek ez omen dute Nazioarteko Auzitegi Penalaren hitzarmena sinatuko.

EEBBek sekula ez zaie nazioarteko hitzarmenak sinatzea gustatu. Alde bitan ozeanoz inguratuta egonik, eta
beste bietan nahiko Estatu ahul eta adiskidetsuak edukita (Mexiko eta Kanada), EEBBek ez dute beste nazio-
en laguntza jasotzeko beharrik izan. Bere egoera geografiko bereziak, Europarekiko daukan jarrera iraultzai-
leak, bere ahalmen ekonomikoak eta lehengai piloek kanpokoekin loturak sortzerakoan kontuz ibiltzera
eraman dute. Horregatik, bere zalantzak dauzka EEBBetako kulturak nazioarteko hitzarmenen inguruan.

Elkarriketatzailerak: Itziar Alkorta
Itzultzailea: Koro Garmendia

